

Bilbon, 2019ko maiatzaren 13an

**GAIA: 'BILBAO+60' PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO SAIORAKO**  
**GONBIDAPENA: 2019ko maiatzaren 22a**

Adiskideok:

2018ko urrian **BILBAO+60 II. Planari** buruzko informazioa emateko saio batean parte hartu zenuten. Izan ere, plan horrek urte batzuk daramatza ADINEKOEKIN ADISKIDETSUAK DIREN HIRIAK programa bultzatzen.

Ordutik hona, 20-25 adineko pertsonen talde bat antolatzen ari gara eta programa hori bertatik bertara sustatzeko prestatzen ari gara. Orduan, gainera, beste pertsona batzuek esan zenuten interesa zeneukatela Planaren aurrerapenaren nondik-norakoak jakiteko.

Hori dela-eta, informazioa emateko beste saio batean parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Saio horren helburua da 2018ko urritik eman ditugun urratsen berri ematea, orain non gauden zehaztasunez azaltzea eta Planaren garapenean laguntzeko prest dauden adineko pertsona gehiagori aukera ematea.

Saioa **La Bolsa Udaltegia** izango da, **maiatzaren 22an, arratsaldeko 18:30ean**.

**BILBAO+60 II. PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO SAIOA**

BILBO, ADINEKOEKIN ADISKIDETSUA DEN HIRIA

**2019ko maiatzaren 22a, eguaztena, 18:30 – 19:45**

Lekua: La Bolsa Udaltegia - Ibaiondo, Pilota kalea 10, 48005 Bilbao (Zazpi Kaleak)

**Zuen zain izango gara!**

Eskerrik asko berriro zuen interesagatik eta laguntzagatik. Hartu besarkada bat.



**Bilbao+60 Talde Eragilea**

Helbide elektronikoa:  
[bilbaoamigablemayores@bilbao.eus](mailto:bilbaoamigablemayores@bilbao.eus)